



'EL OTRO LADO' ANTZEZLANA LEIDORREN

Bihar izango da Gipuzkoako estreinaldia, 20:30ean; Charo Lopez aktorea da protagonista eta ekoizlea **6**

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-10-09**

VIURTEA 1.529.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. IMAZ

**Urrutiak eta
Lahidalgak I.
Argazki Rallya
antolatu dute
Villabonan **5****



A.M.

SILVIA CARRIZO
MALEN ETXEA ELKARTEA

«Gizarteak
esklabuak behar
baditu argi esan
beharko luke»

IBARRA Gaur hitzaldia
emango du Kultur Etxean
19:15etik aurrera **2**

NAGORE LARRALDE NAFARROAKO ZALDI RAID TXAPELKETAKO IRABAZLEA

«Maitatuz, ikertuz eta bera bezala jokatuz zaldia ulertzen saiatzen zara»

LEITZA Jon Fernandez de Antonaren behorarekin irabazi zuen Zaldi Raid Txapelketa **7**

Flemingo hamar etxebizitzaren zozketa egingo dute aurki. **4**

'Evolution &
Love' dantza,
musika eta
antzerkia
bat eginik **3**

Bihartik igandera bitarte, Berazubi auzoko jaiak **2**

txokoa
h

2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu

**"Al Otro Lado"
antzezlan**

Bihar, ostirala
20:30etan
Tolosako Leidorren



10 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu



Bertso-saioa

Urriak 12, igandea
17:30etan
Tolosako Leidorren

«Batzuek askeago bizitzeko beste batzuek esklabuak bezala bizi behar al dute?»

SILVIA CARRIZO » Malen Etxea emakume etorkinen elkarteko kidea

Ibarra » 'Bidea irekitzen duten emakumeak' hitzaldia emango du gaur, 19:15ean hasita, Kultur Etxean.

I. TERRADILLOS

Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Tolosaldeko taldeak emakume etorkinen inguruko *Bidea irekitzen duten emakumeak* izeneko jardunaldiak antolatu ditu aste honetarako Ibarra. Gaur amaituko dira jardunaldiok Silvia Carrizok (Caleta Olivia, Argentina, 1965), Malen Etxea Emakume Etorkinen Elkarteko lehendakariak emango duen hitzaldiarekin. *Etsukadiko emakume etorkinaren lan eskubideak* izango da Ibarra, 19:15ean hasiko den hitzaldiaren izenburua. Carrizok jendeak egungo egoera ezagutzeara eta horrekin sentsibilizatzea dela batik batik hitzaldiaren helburua azaldu du.



AITOR MANTEROLA

Zein izango da hitzaldiaren ardatza?

Elkarte bezala gure egitekoa zein den azalduko dut. Malen Etxea Emakume Etorkinen Elkartean, batik batik, adinekoekin edota etxetan lan egiten duten emakumeak daude. Guk euren benetako egoera zein den ondo ezagutzen dugu, eta hori jendeak jakin dezan nahi

dugu, egoera horrekin sentsibilizatzen.

Nolako egoeraz ari gara?

Gehienak adineko jendea zaitzen lan egiten dutenak dira, eta emakume hauen baldintzak ez dira batere onak; askotan ia esklabuen moduan ari direla lanean ere esan daiteke. Izan ere, 600-700-800 euroko soldata izaten dute

normalean, egunean 24 orduz hartatzeko moduan egon behar izaten dute, eta ia urteko 365 egunak egiten dituzte lan.

Horren aurrean zer egiten duzue elkarte bezala?

Esan bezala, guk oso ondo ezagutzen dugu emakume hauen lan baldintzak zeintzuk diren. Kontua da askok paperik ez dutela, eta ondorioz, ez dute inolako eskubiderik. Bestetik, dirua oso beharrezkoa dutenez, lan horiek onartu besterik ez zaie geratzen, jakin ere baldintzak nolakoak diren. Guk datu guztiak sistematizatu, eta gero publikatu egiten ditugu. Hala, txosten bat ere adostua badugu gizarte eragile desberdinekin eta politikariek, eta bertan gutxieneko baldintza batzuk bete behar direla zehazten da emakume etorkin eta paperik gabeekin lan hauetan.

Eta praktikan ezer aldatzerik badela uste al duzu?

Bai, eta baditugu lorpen txikiak, pixkanaka goaz. Gauza da jakitun

izatea zein egoera bizi dugun. Eta nik gizarteari zera esango nioke, esklabuak behar eta nahi baditu bizitzeko esan dezatela argi, eta gero guk ikusiko dugu. Batzuek askeago bizi ahal izateko beste batzuek esklabu moduan bizi behar al dute? Jendeak hori uler dezan nahi dugu.

Baina zeren ondorio da egungo egoera?

Lehenengo erruduna Atzerritarren Legean bilatu behar da, zitala eta sexista baita, eta eskubideak urratzen baititu, eta gainera, gertatzen ari dena baimentzen du. Bestetik, jendeak 600 eurorengatik nahi du kontratatu, eta emakume hauek paperik ez izateaz baliatzen dira asko, horrela esplotatzen dituzte, ez baitute non eta nola defendatu euren burua. Ez dira kontraturatzen langileak direla, esku lan merkea besterik ez dute ikusten beraian. Ikusi besterik ez dago, esaterako, lan horietan ia ez daudela euskaldunak, ez daudelako prest hori egiteko, eta gainera eskubideak dituztelako; hori da, hain justu ezin dutenak emakume hauek egin, aukeratu, lan horiek onartzea besterik ez zaie geratzen. Bestalde, eskubiderik ez dutenez, gu gara eurei laguntzeko modu bakarra, gertatu baita langile hauek kezkatzea eta segituan lanik gabe geratzea. Oso egoera zaila dute.

Bihartik igandera bitarte Berazubi auzoko jaiak ospatuko dituzte

Tolosa » Adin guztei zuzendutako ekitaldiez gozatzeko aukera izango da: lehiaketak, musika, jolasak, bazkariak...

IÑIGO TERRADILLOS

Berazubi auzoan festa giroa zabalduko da bihar arratsaldetik aurrera. Hain zuzen ere, atsedena txiki baten ostean pasa den urtean berreskuratu zituzten auzo honetako jaiak, eta «izan zuten harrera ona ikusita», gazte lokaleko gazteek ez dute zalantzarik izan aurten ere festa hauek antolatzearen ardura hartzerakoan.

25 gazte osatzen duen lagun koadrilak antolatu ditu, bihartik igandera iraungo duten jaiak. Ho-

rietako bi dira Alex Adurriaga eta Ander Martinez. «Lehen egiten zirenen jaien egitura mantentzen saiatzen gara, eta alde horretatik, ekitaldiak antzekoak izaten dira», diote. Hala, ez dute hutsik egingo aurtengo festetan, hain ohikoak diren paella jateak, mus eta toka txapelketak, patata tortilla lehiaketak edota zahagi sagardoak. «Bizilagunek parte hartzen duten ekitaldi hauek oso arrakastatsuak izan ohi dira; paella jatean eta patata tortilla lehiaketan esaterako jende ugari hartzen du parte». Aurten berrikuntza bezala, txakoli dastaketa ere izango da patata tortilla lehiaketarekin.

Eta berrikuntzei dagokionez, zahagi sagardoaz azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek; «2 kupel jarriko ditugu, eta norberak afaria



Pasa den urtean ere paella jan zuten auzotarrek. N. GARZIA

eman beharko du». Iaz bezala, aurten umeen jolasekin batera gurasoentzako jolasak ere egingo dituzte, «iaz oso ondo egon baitzen». Eta iaz espero baino hobea aterazten gauzetako bat urten ere mantendu egingo dute, hau da, igande goizeko txokolatada; «jendeak asko eskertu zuen, eta horregatik eskainiko dugu berriro».

Hori bai, egun bat gutxiago izango dute aurten jaiak, zubirik ez da goelako aurrekoetan bezala, eta beste hutsunea barrakena izango da, ur kolektorearen obregatik ezin izan baitute aurten jarri. Bestelakoan, festa giroa ziurtaturik dago bihartik igandera Berazubira gerturatzen den edonorentzat.

Jende askoren laguntza

Gazte lokaleko koadrilak antolaturiko jaiak dira, baina askoren laguntza izan dute, bizilagunena, saltokiena eta tabernena, esaterako. Udalak, bere aldetik, karparkin lagundu die, besteak beste. Hala, lagundu dieten guztiak eskertu nahi dituzte antolatzaileek.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Asteburuetarako zerbitzaria behar dugu.

605 72 77 30.

■ **Anoeta.** Esperientzia duen kamara bat behar dugu. Igandean jai. 650 04 31 39.

■ **Bideoak eta musika.** Kilometroen eguneko bideo ugari dituzte ikusgai gure webgunean. Horretarako *bideoak* izeneko atalean sartu besterik ez duzue egin behar. Horretaz gain Irurran izan zen jaialdiaren argazki ugari eta Kilometroetako abestiak eta bideo ofizialak ere ikusi ahal dituzte eskualdeko egunkariaren webgunean:

www.tolosaldeko-hitza.info

» EGITARUA

Urriak 10, bihar

■ **19:30.** Festen hasiera.

■ **21:30.** Zahagi ardoa.

■ **22:00.** Bakarrizketak: Santi Calzada eta Ruben Arrospide.

■ **23:00.** Kontzertuak: Bocio, Peachy Joke eta Inde Kitxen.

Urriak 11, etzi

■ **12:00.** Patata tortilla txapelketa

eta txakoli dastaketa; bi kupel aukeran, eta norberaren esku izango da afaria.

■ **14:00.** Paella jatea.

■ **16:00.** Ume jokoak eta gurasoentzako jokoak.

■ **16:00.** Mus txapelketa egingo dute.

■ **17:30.** Umeentzako ipuin kontalaria: Idoia Sanchez.

■ **20:00.** Luncha Berazubiko bizilagunei eskainia.

■ **23:30.** Disko Festa.

■ **02:00.** DJ Aizpun.

Urriak 12, igandea

■ **06:00.** Txokolatada.

■ **12:00.** Toka txapelketa.

■ **14:00.** Bazkaria eta festa bukaera.



Etenaldi baten ostean, 2006an berreskuratu zuten Argazki Rallya; irudian duela bi urteko irabazleak. NEREA LIZARTZA

Herriko langa eta itxiturak ondoen erretratatzan dituenarentzat, saria

Berastegi » Kultur Batzordeak Argazki Rallya antolatu du; etzi 20:00etan banatuko dituzte karreteak, plazan.

ERREDAKZIOA

Argazkigintza gustuko duten berastegitar guztiek hitzordua dute ostiral honetan. Izan ere, kultur batzordeak antolatuta, Argazki Rallya egingo dute bertan.

Edonork hartu ahal izango du parte lehiaketan, eta etzi, 20:00etan emango zaio hasiera norgehiagokari. Hasteko, karreteak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean. Honetarako, interesatuek herriko plazara hurbildu beharko dute garai horretan.

Behin karreteak hartuta, bi egun izango dituzte lehiakideek nahi bezain beste argazki ateratzeko. Hala, hilaren 12an, 19:00etan, plazara hurbildu eta erabilitako karreteak antolatzaileei eman beharko diete. Hauek errebelatuko dituzte erretratatuak eta ondoren,

argazkien egileei erakutsiko dizkiete.

Aldi honetarako aukeratu duten gaia ondorengoa da: itxiturak eta langak. Hau da, honekin harremana duten irudiak jaso beharko dituzte argazki kameretan. Honekin antolatzaileek nahi dutena da, Berastegi hobeto ezagutaraztea. Gai hau aukeratzearrekin, parte-hartzaileek herritik zehar mugitu beharko baitute, eta mendi inguruetara hurbildu. Kultur batzordekoen esanetan, «herriar batzuk oraindik ez dituzte inguruko landa eremuak ezagutzen, eta honetarako aukera dute Argazki Rallyarekin».

Bestalde, gaur egun kamera digitalak nagusi badira ere, lehiaketa honetan, kamera analogiko edo karretedunak erabili beharko dituzte parte-hartzaileek. Duela urte asko hasi zen Argazki Rallya egiten, baina gero etenaldi bat izan zuen. 2006an berriro ere jokatzan hasi zen, eta orduan ezarritako baldintza gehienak errepikatzen dira egun. Dena den, aurrera begira, kamera digitalekin egingo dute agian

lehiaketa, horrela adierazi dute antolatzaileek. «Gero eta gende gutxiagok baitu etxean argazki kamera analogiko bat», gaineratu zuten.

Beste baldintzetako bat da, argazkiak Berastegiko mugen barruan atera behar direla.

Partaide bakoitzak bere argazkien artean hiru aukeratu ahal izango ditu. Argazkiak errebelatu ostean, antolatzaileek hilaren 12an jakinaraziko diete zein egun eta ordutan egingo den aukeraketa hori. Bestalde, irabazlearen izena azaroaren 15ean emango da jakitera, azoka egunean hain zuzen ere. Epaimahaia Andoaingo zine eta bideo eskolako argazkigintzako ikasle eta irakasleek osatuko dute. Ateratzen diren argazkiekin, Kultur Astearen baitan, erakusketa bat gauzatuko da Urepel Elkartearen egoitzan. Bertan, parte-hartzaileek ateratako argazki guztiak jarriko dituzte ikusgai.

Lehiakideek aukeratu dituzten argazkien artean, epaimahaia hobereena hautatuko du, eta hau saritua izango da.

'Evolution & Love': dantza, musika eta antzerkia

Tolosa » Hilaren 24ean Leidor antzokian estreinatuko da ikuskizun berritzaile hau; sarrerak salgai daude dagoeneko.

ERREDAKZIOA

Hemendik bi astetara, hilaren 24an estreinatuko da Leidorren, *Evolution & Love* ikuskizuna. Musika, dantza eta antzerkia uzartzen dituen emanaldi berritzailea da hau.

Aipatu bezala, lehendabiziko emanaldi Tolosan izango da, eta ikusminez daudenek, sarrerak eskura ditzakete dagoeneko. Hauek 15 euroren truke erosi daitezke, Orbela tabernan, Zumbeltz musika denda eta Leidor aretoko lehiatilan.

Evolution & Love amodioa eta norberaren sinesteen aldeko boroaren bideko istorioa da. Askatasuna eta konpromisoa kontrartzen ditu, maiz, lizunkeriak gaizkiulertua den amodio askatasuna zalantzan jartzeko. Egoera

ezberdinak elkar lotzen dira ikuslearen emozioa lortu nahi duen ikuskizun honetan. Ikuslea bera, gertakariaren joan-etorriarekin, istorioan barneratzen joatea da helburua.

Istorioko protagonistak bere neskalaguna ihes egiten ikusiko du, biek onartua duten askatasun hitzarmenaren baitan. Bere harremanaren oinarria arriskuan ikusten duenean berriz, etsipenean zain dagoen maitalearen bila ekingo dio bidaiari.

Dantza, musikaren adierazpen fisikoa bihurtzen da ikuskizun honetan, eta aldi berean, musika, ikuslea istorioan zehar garraiatuko duten aktoreen ahotsa izango da. Bederatzi musikari, hamaika dantzari, argia, bideoa eta soinua eszenatoki gainean nahasten dira, ordubete inguruko agerpenean. Aktore lanetan Iban Garate, Fernando Ruiz eta Oihana Maritoren ariko dira. Hauekin batera, eskualdeko dantzari eta musikari ugari ariko dira istorioari zentzua emateko asmoz, eta ikusleengozatzena.

'El Caserio' bi alditan ikusi ahal izango da

Tolosa » Hilaren 18ko saioak sortu duen ikusmina dela eta, bezperan, entsegu ireki bat egitea erabaki du Tolosako Orfeoia.

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfoiaren sorreraren 10. urteurrena dela eta, hilaren 18an, Leidor antzokian Jesus Guridiren *El Caserio* zartzueta taularatu dute. Guillermo Fernandez Shaw eta Federico Romeroren jakitorrizko liburuxkan oinarrituko dira.

Lan hau eszenaratzeak ikusmin handia sortu du zartzueta zaleen artean. Hori dela eta, sarrera gutxi

geratzen dira hilaren 18ko emanaldirako. Hau ikusita Orfoiok, bezperako entsegu irekia egitea erabaki du. Hau da, edonork joan daiteke ikustera. Hemen, ikusleek antzeppen osoa ikusteko modua izango dute, sor daitezkeen etenaldi eta zuzenketekin.

Zartzueta joateko sarrerak Leidor antzokiko lehiatilan edo internet bidez erosi daitezke. Kutzaren webunean edo www.generaltickets.com helbidean. Sarreraren prezioa 25 eurokoa da. Entsegu orokorra ikusi nahi dutenek berriz 10 euro ordaindu beharko dituzte.

El Caserio lanean Juan Jose Ocon maisuak zuzenduko du Iruñeko Orkestra eta Tolosakoa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



Flemingo etxebizitzak Gurea aretoaren ondoan daude eta bukatzeaz daude eraikitze lanak. I. GARCIA

Flemingo hamar etxebizitza tasaturen zozketa egingo du Udalak aurki

Villabona » Babes ofizialeko etxebizitzaren modulua bider 1,7 eginez aterako da etxebizitza tasatuen prezioa.

ERREDAKZIOA

Flemingo etxebizitzak bezala eza gutzen den eraikinean, hamar etxebizitza tasatu zozketatuko dira aurki. Tasatuak izatean, Udalak ezarritako prezioa izango dute eta merkaturako prezioa baino baxuagoa. Hain zuzen, babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) modulua-

ren prezioa bider 1,7 eginez ateratzen den prezioa izango dute. Eusko Jaurlaritzak modulu horren zenbatekoa aldatzeaz dago eta horregatik oraindik ezin da zehaztu zein izango den zehazki etxebizitzaren prezioa.

Hamar etxebizitzaren batez besteko azalera erabilgarria 96 metro koadrokoa izango da. Txikiak 89,15 m² izango ditu eta handiak 97,55 m². Etxebizitzek haritz-egurreko parketa izango dute, haritz-egurreko ateak, kristal bikoitzeko aluminiozko kanpoko itxiturak era gas naturalez funtzionatzen duen banakako berogailua.

Etxebizitza bakoitza bere trasteleku eta garajearekin erosi beharko dira.

Interesa dutenek eskabideak aurkezteko epea hilaren 13tik 31ra izango dute eta horretarako udale-

Etxebizitzarik ez edukitzea, elkarbizitzako unitateko kide guztiek bete beharreko baldintza

txeko udalbatza-aretoan egin beharko da, astelehenean ostiralera, 09:00etatik 13:00etara. Eskararak egiteko baldintza batzuk bete be-

har dira. Horrela, adinez nagusiak izan behar dira eta eroldari dago-kionez, gutxienez azken bost urteetan etenik gabe elkarbizitza unitateko kide batek Villabona ohiko bizileku izatea eta azken bost urteetan eroldatua izatea, edo gutxienez 15 urtez eroldatua egon izana, etenaldiak izanda ere, eta egun herriaren eroldatua.

Horrez gain, elkarbizitza unitateko kide guztiek bete behar duten baldintza da etxebizitzarik ez edukitzea. Diru-sarreraren ponderatuei dagokionez, elkarbizitza unitateak urtean 9.000 euro eta 52.500 euro artekoa izan beharko ditu.

Ezker Hormako III. Emakumea Pilotari Txapelketaren hasiera, etzi

Pilota » Lehenengo jardunaldia Amasako pilotalekuan jokatuko dute; Tolosan hilaren 25ean izango dira partidak.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak etzi jarriko du martxan Ezker Hormako III. Emakumea Pilotari Txapelketa Amasako pilotalekuan. Iaz egin zen bezala, pilotariak bi mailatan arituko dira, lehenengoan eta bigarrenean. Antolakuntzak bakoitzaren joko-maila kontuan hartuta bikote orekatuak osatzeko saiakera egin du beste behin ere. Guztira hamaika bikote arituko dira lehian, horietatik bost lehenengo mailan eta sei bigarrenean.

Partidak eskualdean

Txapelketako jardunaldi bakoitza egoitza ezberdin batean jokatuko dute pilotariak. Bertan bost partidak jokatuko dituzte bata bestearen atzetik, 15:30ean hasita. Esan bezala, Amasako pilotalekuan ekingo diote txapelketari, etzi.

Eskualdean ere beste jardunaldi bat ere jokatuko dute emakume pilotariak. Tolosako Beotibar pilotalekuan izango da jardunaldi hori, hirugarrena, eta hilaren 25ean jokatuko dute. Beste jardunaldiak herri hauetan jokatuko dituzte: hilaren 18an Ataunen, azaroaren 8an Errenterian eta azaroaren 15ean Urretxun. Finalerdia Donostian eta finala Zarautzen izango da.



Datorren urriaren 10ean, ostirala, 12:00etan
GARBIÑE BIURRUN
epaile tolosarrarekin elkarbizitza digitala

HITZAren erredakzioan izango duzue zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.

www.tolosaldekohitza.info webgunean



iragarkilaburrak.com
EUSKALDEKO IRAGARKI LABURREN ATARIA

zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira
tolosaldeko hitza. **iragarkilaburrak.com**

iragarkia jartzeko: www.tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

Argazki kamera ibiltariak izango dira etzi herrian zehar

Villabona » Amasa-Villabonako I. Argazki Rallya antolatu dute Idoia Lahidalga eta Iyuya Urrutiak, Udalak lagunduta.

I. GARCIA

«Argazkilaritza gustatzen zaigu eta joaten hasi ginen argazki rallyetara. Dezentetara joan gara eta sariren bat irabazi dugu eta pentsatu genuen parte hartzetik antolatzera pasatzera. Gainera Villabonan ez da oraindik antolatu argazki rallyrik». Horrela sortu zitzaion Iyuya Urrutiari eta Idoia Lahidalgari Amasa-Villabonako I. Argazki Rallya antolatzeko ideia. Pentsatu eta egin: etzirako, goizean zehar, antolatu dute.

Argazkilaria bezala parte hartzen badakite bi villabonatarrek, baina beste aldean egon nahi zuten, antolakuntzan. «Batez ere besteek egindako argazkiak baloratzea interesatzen zaigu», azaltzen dugu. «Hainbat argazki rallytara joan ondoren, ikusi ditugu rally ezberdinak, esperientzia hartu dugu eta eta ikasi dugu argazkiak bereizten». Epaimahaian, bi antolatzailerez gain, argazkigintzan adituak, kultur zinegotziak eta herriko elkarteetako kideek parte hartuko dute.

Erakusketa

Etzi goizean eman behar da izena, 08:30etik 09:30era, udaletxe azpian eta bost euro ordaindu behar dira. Bertan emango zaie papertxo bat eta bertan azalduko dira zein izango diren gaiak. Goizean zehar argazkiak atera ondoren 13:00etatik aurrera utzi ahal izango dira argazkiak. Lehiaketan zehar hamai-ketakoa antolatuko dute.

Rallyan ateratako argazkiak erakutsi nahi dituzte. «Nahiz herritar batzuk parte hartu, gero erakuske-

ta egiten denean herritarrak ikustera joateko aukera izango dute», azaltzen dute. Azaroan zehar jarriko dute erakusketa eta sari banaketa azaroaren 8an egingo da.

Parte-hartzaile kopuru aldetik ez dakite zenbatek parte hartuko duten, baina zenbaitzuk deitu die lehiaketaren nondik norakoak galdetzeko. Gainera, beraiek ezagutzen dituzten eta beste argazki

rallyetan parte hartzen dutenei ere eman die lehiaketaren berri. Izan ere, edozeinek parte hartu dezake rallyan.

Antolatzailerek Udalaren laguntza eskertu dute. «Sariak eta kartelak beraien esku dira eta eskertzea da eman duten laguntza», adierazi dute. «Jendea herrira etortzeko beste arrazoi bat da ere», gaineratzen dute.



Iyuya Urrutia eta Idoia Lahidalga, rallyaren kartelarekin. I. GARCIA

Beste aldea El otro lado

Ariel Dorfman

Urriak 10, 20:30

LEIDOR ARETOA
TOLOSA

gizarte ekintza

kultura

Zuzendaria: Eusebio Lázaro

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

Laguntzaile:

kutxa

» ARGIBIDEAK

- **Noiz eta non.** Urriaren 11n, Villabonan.
- **Izen-ematea.** Errebotte plazan, udaletxe azpian, 08:30etik 09:30era, 5 euro ordainduz.
- **Modalitatea.** Argazki digitalak.
- **Gaiak.** Rallyaren hasieran bertan emango dira.
- **Argazkiak entregatzea.** Errebotte plazan egin beharko da, 13:00etatik 14:00etara.
- **Sariak.** Lehenengo bildumarentzat: 150 euro. Bigarren bildumarentzat: 120 euro. Hirugarren bildumarentzat: 90 euro. Lehen billabonatarra: 70 euro. Akzesitak, gai bakoitzaren lan onenari: 50 euro. Sari banaketa azaroaren 8an egingo da.
- **Oharra.** Egile bakar batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

'El otro lado' antzezlanaren estreinaldia bihar Leidor aretoan

Tolosa » 20:30etik aurrera izango da ikusgai; bertan Charo Lopez, Eusebio Lazaro eta Jose Luis Torrijo dira aktore nagusiak.

ERREDAKZIOA

Ez da berria Leidor aretoko ohol-tza Charo Lopez aktorearentzat. Hamar urte eta gero Tolosara bueltatuko da *Al otro lado* antzezlanarekin (*Beste aldean*); bihar izango da ikusgai, 20:30etik aurrera. Emanaldi hau, gainera, antzezlanaren estreinaldia izango da Gipuzkoan.

Charo Lopezekin batera Eusebio Lazaro ariko da aktore lanetan. Azken honek, gainera, antzezlanaren muntaia zuzendaritza hartu du bere gain. Halaber, pasa den edizioan *La soledad* filmari esker aktore berriaren sailean Goya saria irabazi zuen Jose Luis Torrijo izango da bi aktoreekin batera. Bertara joateko interesa dutenek sarrerak erosteko aukera izango dute www.kutxa.net, Servikutxan, Telekomutxan eta Leidorreko lehiatilan.

Ekoizle lanetan Charo Lopez aktorea bera aritu da, Ariel Dorfman argentinarraren lana moldatuz.

Historioaren nondik norakoak

El otro lado lanak hirugarren adinako bikote baten erlazioaren drama aurkezten du. Euren etxearen erdian muga politiko bat dago. Istoria tonu ironiko batean idatzita dago. Lopezek berak azaldu duenez, «gerraren absurdoaz hitz egiten du, pizten duen gorrotoaren absurdoaz».



Al otro lado laneko antzezleak: Jose Luis Torrijo, Charo Lopez eta Eusebio Lazaro. HITZA

Etxe xume batean bizi da bikotea. Euren lana hilotzak identifikatzea eta lurperatzea da. Soldadu hauek fikziozko bi herrialderen arteko mugan hiltzen dira, Constantza eta Tomis herrialdeetan, hain zuzen ere.

Soldadu bat euren etxean sartzen da, bikotearen egunerokotasuna apurtuz. Honek marra bat marrazten du mugan, bikotearen ohea bitan banatzen duena. Hala, bata besteari bisa eskatzea behartuta daude, sukaldara sartu edota komunerajoa ahalizateko.

Charo Lopezek behin baino gehiagotan aipatu du gustuko duela herri txikietan antzeztea, «ikusentzuleak gertuago sentitzen dituelako». Kontuan izanik Tolosa

» HAINBAT DATU

- **Izenburua.** *Al otro lado*.
- **Noiz.** Bihar, ostirala.
- **Non.** Leidor aretoar.
- **Ordua.** 20.30ean.
- **Sarrerak.** www.kutxa.net; Servikutxa; Telekomutxa; Leidorreko lehiatilan.
- **Zuzendaria.** Eusebio Lazaro.
- **Ekoizlea.** Charo Lopez.
- **Egilea.** Ariel Dorfman.
- **Aktoreak.** Charo Lopez, Eusebio Lazaro eta Jose Luis Torrijo.

ezagutzen duela, ziur gustura gertatuko direla bai antzezlaneko taldea baita ikuskizunaz gozatzeri Leidorre gerturatzen direnak ere.

Oro har metafora bat da *Al otro lado* lana, bikoteen arteko erlazioei buruzkoa, munduari buruzkoa eta gatazken artekoa. Lopezek azaldu duenez «horrelako istorioak kontatzea gustuko dut».

Dorfman, giza eskubideen aldeko lan nekazina

Ariel Dorfman (Buenos Aires, Argentina 1942) da lanaren egilea. Txilen lan handia egin du giza eskubideen alde eta, besteak beste, poesia, saiakerak eta eleberriak idatzi ditu.

Unibertsitate irakasle ere izan da. Bere lan ezagunen artean *La muerte y la doncella* izeneko dago, Roman Polanski ondoren pantaila handira eraman zuena.

5-10 kilo amonal zituen epaitegian lehortarazi zuten lehergailuak

Tolosa » Pasa den irailaren 21an Vital Kutxaren egoitzan eta Ondarroako ertzean etxean lehergai bera erabili zuten.

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurilaritzako Herrizaingoa Sailak jakitera eman duenez, 5-10 kilo amonal zituen pasa den larunbat goizaldean Tolosako epaitegian ETAK jarri zuten lehergailuak.

Hain zuzen ere, irailaren 21ean Vital Kutxaren eta Ondarroako ertzean etxean lehergai bera erabili zuela azpimarratu du Herrizaingoa sailak; aurreko bi atentatu horietan, ordea, 100 kilo inguru erabili zituzten.

Tolosako epaitegian jarritako bonbak ez zuten inor zauritu, baina kalte material handiak eragin zituen, Joseba Azkarraga Justizia sailburuak agertu zuenez, 400.000 euro beharko dira epaitegia lehengo egoerara itzultzeko.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain. Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larriald: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosalde bus: 943 650621
Leitzaran autob. : 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Azken atxiloketak salatu dituzte

POLITIKA » Eskualde mailako elkarretaratzea egin zuen atzo Tolosako Trianguloan Gazte Mugimendua, Euskal Herrian izan diren azken atxiloketak salatuz. «Atxiloketekin eta salbuespen egoerarekin amaitzea» eskatu zuten bertan bildutakoek. Pasa den astean atxilotu zituzten lau gazte iruindar eta aste honetan beste hiru. Madrileran eraman zituen Poliziak eta batzuek inkomunikaturik jarraitzen dute. Iñaki Marin, Diego Octavio, Mikel Marin eta Iker Aristu pasa den astelehenean atxilotu zituzten eta Gorka Sueskun, Ibai Azkona eta Iker Araguas pasa den astean; azken hiru hauek inkomunikazio egoeratik atera dituzte. i.e.



E Elkarrizketa

NAGORE LARRALDE Nafarroako Zaldi raid txapelketa



ASIER IMAZ

«Zaldia ulertzen saiatzen zara, ikertuz eta bera bezala jokatzuz»

Leitza » Jon Fernandez de Antonaren behorarekin Nafarroako Zaldi Raid Txapelketa irabazi zuen iragan larunbatean Nagore Larralde.

ASIER IMAZ

Neska berezia da Nagore Larralde (Leitza, 1985). Denbora librean zaldi hezitzailea, Nafarroako Zaldi Raid txapelketa eta ametsa egi bi-

laktzen duena. Nagore Larralde zaldiak ulertzen saiatzen da: maiztatuz, goxatuz eta agian xuxurlatuz, film hartako pertsonaia ospetsu haren antzera.

Zer da zaldi raid modalitatea?

Iraupeneko zaldi karrerabat. Kilometro-kopuru bat jartzen dute eta zaldiak ahal duen agudoena egin behar du, baina aldi berean, fisiko-baldintza onean amaitu beharra dauka. Horretarako, albaitari kontrolak jartzen dituzte karreran zehar. Proba hauek ez baldin badi-tuz gainditzen, karreratik kanpo gelditzen zara. Adibidez, pulsa-

zioak 56tik behera eduki behar ditu, herrenik ba ote duen ikusten dute, digestioz eta hidratazioz ondo doazen... Gero denbora bat ere jartzen dute eta hori baino azkarrago ezin zara iritsi helmugara. Guk arazo handienak denborarekin izan genituen; azkar iritsi ginen helmugara eta 3 segundogatik libratu ginen.

Zergatik irten zinen Nafarroako txapelketan?

Pike bat. (Barreak). Urte zahar gaueko parrandako apustu bat. Jon Fernandez de Antonarekin topatu eta hor hasi ginen, «ezetz atera nire behorarekin karrera batean, baietz...». Horrela, karrera batean apuntatu ginen. Lehen urtea izateko ondo joan da: Nafarroako Txapelketa irabazi dugu.

Eta hemendik aurrera?

Behorra oso ongi dagoela ikusita egurra ematea tokatzen da he-

mendik aurrera. Guri ere kontua gustatu egin zaigu eta hemendik aurrera karrera luzeagoetan hasiko gara.

Zure zaldiak ere badituzu.

Bai, baina karrerarako bere behorra erabiltzen dut, raid baterako prestatuena berea baitago. Nik ni-reak entrenatzeko denborarik ez daukat, heziketa kontu horietan ibiltzen bainaz.

Hezitzaile lanetan aritzeko ikasketak beharrezkoak al dira?

Nik gida titulua daukat. Hortik aurrerako asko irakurriz eta ahal den gehiena praktikatzuz ikasi dut. Gero dakien jendearen inguruan ibiltzen zara: ikusiz, entzunaz eta isilduz; etxera joan eta buruan grabatu duzun guztiari bueltak eman eta azkenik praktikan jarriaz.

Nola komunikatzen zara zaldiekin?

Heziketa naturalaren arabera, seinaleen bidez, beraien espresioak ulertuz eta interpretatuz.

Xuxurlatzen al diezu?


(Barreak). Ez da pelikulan bezain polita baina hortik doa. Zaldia psikologikoki ulertzen saiatzen zara, ikertuz eta zaldi bat izango bazina bezala jokatzuz beraiekin.



Laguntza eskaera zabaldu dute

LEITZA • Leitzalarreko Sorobarrengo borda erre zen iragan ostiral gauean, ustez tximiniatik su hartuta. Sugarrek borda guztia erre zuten. «Duela urtebete ezker bertan bikote bat bizi zen. Borda erabat moldatu zuten; teilatua, sukaldea, bainugela... Bertan erleekin lan egiten zuten eta aurtengo uzta guztia suarekin galdu dute, ondasun guztiekin batera: arropak, altza-

riak, dokumentazioak etabar. Esku hutsik gelditu dira! Bizitexerik gabe eta zeri ekin gabe». Herritar talde batek herritarrei laguntza eskatu diete, «berri-berritik hasi eta beraien etxebizitzak berriz zutitzeke». Horretarako lehen urratsa Euskadiko Kutxan eta Nafarroako Kutxan bi kontu korrante irekitzea izan da. Laguntza eman nahi dutenek bertara joan beharko dute. A.I.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	19°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak ikasturte berriari ekingo dio gaur Intxurre elkartearen 20:00etan.
■ **Tolosa.** Oargi Mendi Elkarrekin Mendia eta Natura gaiarekin argazki lehiaketa antolatuta du. Argazkiak Karlis argazki dendan aurkeztu behar dira, hilaren 29a baino lehen. Oinarriak eta sariak: www.oargi.org.

Hitzaldiak

■ **Ibarra.** Euskadiko emakume etorkinaren lan eskubideak, Malen Etxea elkarteak Silvia Carrizoren eskutik, 19:15ean Kultur Etxean.

A Agurrak



Urte askoan!

Manex Esnaola. Gaur 3 urte. Pottolo egun ona pasa! Naroa, aita eta amaren partetik.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Tolosako Oargi Mendi Elkarrekin Mendia eta Natura gaiarekin argazki ikastaroa antolatuta du. Ikastaroa gaurtik 16ra izango da, teoria eta praktika jorraturik. Hiru egunetan izango da. Irakaslea Gema Arrugaeta argazkilaria da. Kostua 25 eurokoa da. Datu gehiago Oargiren webgunean (www.oargi.org).

Irteerak

■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilat elkarrekin Gares eta Logroñora irteera antolatuta du 18rako. Bazkaria Meson Rios-en. Izen-ematea, elkarrekin 23 eurotan (26 ez bazkideek).
■ **Tolosa.** Santa Mariako Atsedena Taldeak irteera antolatuta du urriaren 18an Donostiako Santa Klara uhartera, 12-16 urtekoentzat. Izen-ematea,

atsedena@hotmail.com helbide elektronikoa edo 680277411 telefono zenbakian.

15:00etatik aurrera, bereiztu eta sailkatzea.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre mendi elkarrekin, bere 50. urteurrenean mikologia erakusketa antolatuta larunbat goizean Plaza Zaharrean. Bezperan perretxikuak bildu eta Parroki etxera eraman daitezke

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunikuzinik.

PANPINAK

DVD berria etxeko txikiak jolasteko

DVDa (posterra opari) **18€**

Panpina bakoitza (txapa opari) **20€**

Egin eskaria amaitu baino lehen **902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info** adierazi harpidedun kodea

hitza

KM KULTURAREN

Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

2008ko irailaren 17tik azaroaren 8ra

ERAKUSKETA
Ganbara 3. pisua

CORMAN
KRISI KABINETEA

ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelohen, igande eta jaiegunetan itxita
e-mail: kmk@komazk.com
Bisitaldi gidatuak taldeentzat:
Tel. 943 112 757 / 667 346 025

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskararen Departamentua

Bertso saioa

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Bixente Gorostidi, Aitor Mendiluze, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi.
Gai-jartzailea: Saroi Jauregi.

Antolatzailea: Euskara batzordea.
Laguntzailea: Gipuzkoako Bertsotale Elkartea.

Urriak 12, igandea • 17:30ean
Tolosako Leidor Zineman

Jantzi dotore, jantzi hitza.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**